



VERTER RECYCLING-EK ADITU TALDE BAT KONTRATATU DU, EUSKO JAURLARITZAREN ZERBITZURA JARRIKO DUENA ZABORTEGIAN JARDUTEKO PLANAK GARATZEKO

Zaldibar, 2020ko otsailaren 14a. Istripua gertatu ondorengo lehen orduetan, enpresako arduradunen ahalegina lurpean dauden bi lankideen familiei arreta ematera bideratu zen. Verter Recycling-ek uneoro erakutsi du agintariekin lankidetzan aritzeko asmo argia, Joaquín eta Alberto aurkitzen laguntzeko, baita hondakinak erretiratzeko eta lurra egonkortzeko lanei ekiteko ere.

Inguruneari eragiten dioten emergentzia-egoeretan jarduteko protokoloei jarraikiz, lehen lanak administrazioak abiarazi zituen, Segurtasun Sailaren Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren koordinazio pean. Lur-jausiak eragindako ezohiko egoerari aurre egiteko urgentziatzko lanak izan zirenez, enpresari lehen orduetan ez zitzaion deitu jarduerarik gauzatzeko.

Joan den asteazkenean egin zuten lehen bilera enpresak eta administrazioak –azken horrek deitu zuen enpresak eskatuta–. Eusko Jaurlaritzako Ingumen Saileko arduradunak izan ziren bileran, eta bi aldeek jarduketa zehatzak gauzatea hitzartu zuten. Ildo horretan, enpresak aditu talde bat kontratatu du, antzeko egoeretan ibilbide profesional zabala eta egiaztatua duena. Talde tekniko espezializatu hori Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren zerbitzura egongo da emergentzia kudeatzeko Batzorde Teknikoak, Jaurlaritzak eskatuta osatu denak, egingo dituen lanetan. Jakinarazi denez, berehala hasiko dira lan horiek.

Verter Recycling Jaurlaritzaren esanetara jarri da, hark proposatu baitio gutxienez emergentzia-egoera honetako lehen fasea zuzentzea koordinazio-batzorde bat sortuta. Hala, lanak beharrezko den azkartasunaz eta gaitasunaz gauzatu ahal izango dira.

Bestalde, enpresa Ingurumen Sailak eskatu dion eta eskuragarri daukan dokumentazioa ematen ari da.

Verter Recycling *online* oharrak: www.verter.eus

Informazioa: Arturo Zubiaga

Telf: 94 415 86 42